

GRADU AMAIERAKO LANA

Usukapioa/ Preskripzio eskuratzailerak: Motak eta ezaugarriak

ZUZENBIDEKO GRADUA

2020/2021 IKASTURTEA

EGILEA: MAIDER BIKANDI DE LA CORTE

ZUZENDARIA: IRANTZU BERIAIN FLORES

LANDUKO DIREN GAIAK:

1.- LABURDURAK

2.- SARRERA

3.- USUKAPIOA: ARAUKETA

3.1.Kontzeptua:

3.1.1Gaur eguneko usukapioaren kontzeptua

3.2 Jabetza, usukapioaren helburu

3.2.1 Jabetza eskuratzeko moduak

3.3 Usukapioaren betekizunak:

3.3.1 Betekizun orokorrak:

3.3.1.1 Edukitza

3.3.1.1.1 Edukitza motak

3.3.1.1.2 Edukitza eskuratzeko modua

3.3.1.2 Usukapioaren baldintzak

3.3.2 Betekizun bereziak

3.4 Ohiko eta ez ohiko usukapioa

3.5 Usukapioaren efektuak

4.- JURISPRUDENTZIA: SENTENTZIA ANALISIA

5.- ONDORIOAK

6.- BIBLIOGRAFIA

1- LABURDUREN ZERRENDA:

Art.	Artikulu
KZ	Kode Zibila
PAE	Probintzia Auzitegi Epaitegia
AG	Auzitegi Gorena
PA	Probintzia Auzitegia
EK	Espainiako Konstituzioa
Zit	Zita
TOL	Tirant On Line
OR	Orrialdea
ORR	Orrialdeak

2-SARRERA

GAL honen objektua usukapioa, oro har, da.¹

Denbora hitza latinezko *tempus* hitzetik dator, eta *RAE*ren definizioaren arabera, magnitude fisiko bat da². Horren bidez gertaeren iraupena edo banaketa neurtzen da. Denborak badu Zuzenbidean bere garrantzia, efektu juridiko bat aitortzeko aukera ematen duelako, zuzenbidean aitortutako inguruabar jakin batzuk gertatzen baldin badira. Horietako efektu bat, eta aztergai dugun usukapio erakundea dela medio: denbora eta edukitzaren bidez, pertsona batek ondasun baten gainean duen jabetza-eskubidea aitortzen du, baldin eta ondasun horren titular gisa jardun badu, benetako jabeak aurkakotasunik erakutsi gabe.

Ikusiko denez, batzuetan, gizakiek errealitatean islatzen dutena ez dator bat jokabide hori ahalbidetzen duen arau juridikoarekin, esate baterako, ondasun baten gainean jabea izan gabe horrela jokatzea. Hori da usukapioak ahalbidetzen duena, jabe gisa jarduten duen edukitzaile baten aurrean gaude, eta edukitzaile horrek ondasunaren gaineko eskumena du titular gisa, baina, egiazki, ez du horrela jarduteko gaituko lukeen titulu erreal hori. Usukapioa mekanismo bat da, zeinaren bidez egitatezko egoera bat, edukitza, eskubide-egoera bihurtzen da, edukitza hori legez ezarritako epe batean aurkakotasunik gabe mantendu denean, eta baldintza jakin batzuk bete direnean.

Lan honetan zehar, aurretik aipatu bezala, lehen atalean usukapioaren munduan murgilduko gara bere kontzeptua, helburuak eta betekizunak banan-banan aztertuz. Bigarren atalean, ondasun higiezinaren ez ohiko usukapioa aztertuko dugu sententzia baten bidez, jurisprudentzia mailan arlo honetan planteatzen diren arazoak ikusiz.

Komenigarria da gure aztergaiaren inguruan ezer ez dakien pertsona bat kokatu ahal izateko, usukapioaren definizio bat ematea, oro har, hautatutako azterketa-asmoaren

¹ Usukapioa erosteko preskripzio gisa ere dei daiteke. Sinonimo hau Justiziaeus web orrialdetik atera izan da, <https://www.justizia.eus/euskarajustizian?cjterm=prescripci%F3n+adquisitiva&bjterm=Bilatu&idiomaBusq=ES#linkjtermeus2> helbidetik.

² Denbora hitzaren definizioa *RAE*ren web orrialdetik atera izan da, <https://dle.rae.es/tiempo> helbidean.

ohar bereizgarriak ezagutzeko. Horregatik, *RAEk* ematen duen definizioari harreta jarriko diogu: *adquisición de una propiedad o de un derecho real mediante su ejercicio en las condiciones y durante el tiempo previsto por la ley*³.

Definizio hau abiapuntutzat hartuz, bi gauza azpimarratu daitezke: denborak eta edukitzak duten garrantzia gure aztergaiari begira, usukapitu ahal izateko ondasuna edukitzapean modu etengabea egon behar da legeak adierazten duen denboran, ondasun motaren arabera, higigarria edo higiezina izanda. Horretarako, nahitaez bete behar dira baldintza orokor batzuk, beste elementu espezifiko edo berezi batzuekin batera, horrek sailkatuko bait ditu preskripzio-motak, funtsean, ohiko eta ezohiko erosketa-preskripzioa. Usukapitu nahi den ondasunaren gainean egin behar den etengabeko edukitzaren iraupena aldatu egiten da, ondasun higigarri edo higiezin baten aurrean baldin bagaude; iraupen luzeagoa izango du bigarren horrek. Esan beharra dago, ondasuna usukapitu ahal izateko hura edukitzan izateko beharrezkoa den denbora, ez duela soilik ondasun higigarri edo higiezina izateak adieraziko, ohiko edo ez ohiko usukapioa izatea baita ere eragina izango du. Nahiz eta aurrerago garatu, usukapio arrunteko edo ohiz kanpoko egoera baten aurrean noiz gauden bereizteko, kontuan izan behar dugu honako funtsezko elementu hauen presentzia eta gabezia: fede ona eta baliozko titulua. Usukapio arruntak bi elementu horiek barneratzen dituen izanik, baliozko titulua eta fede ona, eta ohiz kanpoko usukapioa baldintza horietakoren bat betetzen ez duena izanik⁴.

Gaur egun Zuzenbidean usukapioa nola dagoen arautua ikustea izango da gure garapen helburua. Kode Zibilaren 609.artikuluak jabetza bereganatzeko moduak aipatu egiten ditu, eta artikulu horren hirugarren paragrafoak ezartzen du: *pueden también adquirirse por medio de la prescripción*. Artikulu hori irakurrita, usukapioa jabetza eskuratzeko moduetako bat dela azpimarratu behar dugu, eta eskubide errealik osatuena dela, beste eskubide erreal batzuek gain, hala nola usufrukto edo zortasuna.

³ *RAEk* usukapioari buruz emadako definizioa, <https://dle.rae.es/usucapi%C3%B3n> helbidetik jasota.

⁴ Zati horrek usukapio kontzeptua eta erabili nahi den objektuaren ondorioz gerta daitezkeen motak planteatzen ditu; gainera, baldintza orokor eta/edo espezifiko batzuk betetzen diren edo ez. Emandako informazio hori zabaldu nahi izanez gero, komeni da obrara jotzea: CASTÁN TOBEÑAS, José: *Derecho Civil Español, Común y Foral*, bederatzigarren edizioa, II. Liburukia, *Derecho de cosas*, Instituto Editorial Reus, Madril, 1957.

Usukapioaren oinarria aldatu egin da mendeetan zehar. Oso eztabaidatua izan da. Esan izan da erakunde bidegabea dela titularraren ikuspuntutik, bere eskubide erreala galtzen duelako beste baten usukapioagatik. Gaur egun, doktrina osoan mantentzen dira usukapioaren justizia, beharra eta gizarte-onura, oinarri subjektibo eta oinarri objektibo batean oinarrituta. Bi mota ditugu, bata objektiboa eta bestea subjektiboa. Bada jarrera bat, jabaria eskuratzeko bitarteko horren oinarri subjektiboa, ondasunaren jabeak hura utzi edo hari uko egiteko duen borondatea dela defendatzen duena, aldi berean beste pertsona bat jabekide denean⁵. Usukapioaren oinarri subjektiboa eskubidearen titularraren utzikieran edo zabarkerian oinarritzen da; izan ere, titular horrek, bere jardun ezagatik, aukera eman dio beste bati bere eskubidea eskuratzeko, denbora jakin batez edukitza jarraitua izateagatik. Oinarri objektiboa onargarriagoa da; izan ere, usukapioa egon dadin, ez da beharrezkoa titularrak zabarkeriaz jokatzeko edo erabiltzaileak lana egitea. Aitzitik, nahikoa da edukitzaren egitate objektiboa legeak ezarritako denboran eta betekizunekin. Oinarri objektiboa, trafiko juridikoaren segurtasuna, interes orokor sozial eta ekonomikoa eta ondasun publikoa dira; aldi batean eta betekizun batzuen bidez, titular gisa publikoki, sozialki eta ekonomikoki agertzen den eskubidearen titulartasuna aitortzea. Aldi berean, eskubide errealean existentzia eta titulartasuna urrunera arte frogatu beharra saihesten du. Gure Kode Zibilak usukapioak zuzenbidearen segurtasunerako bitarteko gisa balio duela dioen oinarri objektiboari lehentasuna ematen dio⁶.

Legegileak erabaki du, zenbait baldintza betez gero, eskubide erreal baten titular izatea jatorrizko jabearen aurrean. Erabaki horren oinarria, segurtasunaren eta orden publikoaren printzipioa da; izan ere, esparru horri dagokionez, ez da inolako zalantzarik sortu behar, eta eskubideen titulartasunari buruzko arau seguruen bidez arautu beharra nagusitzen da. Hori dela eta esan dezakegu, usukapioaren oinarri subjektiboaren aurrean,

⁵ DÍEZ-PICAZO, Luis eta GULLÓN, Antonio: *Sistema de Derecho Civil*, III. Liburukia, *Derecho de Cosas. Derecho Inmobiliario Registral*, Madril, Tecnos, 2004, 146.or. “Esta voluntad de abandono por parte del titular del derecho de dominio es deducida de la ausencia de ejercicio de aquellas acciones que protegen su derecho, dejando transcurrir el plazo establecido en la ley que determine el cambio de propietario del dominio de ese determinado bien”.

⁶ Oinarri subjektibo eta objektiboaren azalpena eta bereizketa hurrengo obran topa daiteke: O'CALLAGHAN MUÑOZ, Xavier: *Compendio de Derecho Civil*, III. Liburukia, *Derechos reales e hipotecarios*, Madril, Editorial Universitaria Ramón Areces, Lehen edizioa, 2012.

legean zehaztutako oinarri objektiboa dela nagusi, trafiko juridikoaren segurtasuna, interes orokor sozial eta ekonomikoa babesten duelako.

3- USUKAPIOA: ARAUKETA

Preskripzio eskuratzailerak, usukapio ere deitzen dena, Espainiako Kode Zibilak jasotzen du XVIII. tituluan, "Preskripzioa" izeneko atalean.

Epigrafe honetan usukapioaren azalpen lausoa emango dugu, nahiz eta arestian gainetik aipatu izana, eta zehaztasun handiagoz aztertuko dugu hurrengoetan, kontzeptu hori aberasten duten ideia ugari emanez. Definizio labur bat aurkeztu nahi dugu, irakurlearentzat ulerterraza, tresna hori ezagutzen ez badu, haren ikuskera orokorra izan dezan, kokatzen laguntzeko, nahiz eta zerbait aipatu izana.

Usukapioaren figura, baita ere eskuratzeko-preskripzio dei dakioke. Kode Zibilaren 1930. Artikuluaren lehen letraz bere definizioa topa dezakegu; aldiz irautze-preskripzioarena, bigarrean.

Kode Zibilaren 1930.1 artikulua xedatzen duenez, *por la prescripción se adquieren, de la manera y con las condiciones determinadas en la ley, el dominio y demás derechos reales*. Ondore, usukapioa pertsona batek ondasun edo eskubide baten jabetza eta beste eskubide erreal batzuk eskuratzeko tresna dela ondorioztatu daiteke. ORTEGA CARRILLO DE ALBORNOZ autoreak aipatzen duen bezala, *es la adquisición de la propiedad mediante la posesión continuada en el tiempo*⁷. Beraz azalpen sinple eta labur horren arabera uler daiteke usukapioa jabetza bereganatzeko tresna izango litzatekeela, denbora luzez, edukitzearen bidez.

Paragrafo berean eskuratzeko-preskripzioa eta preskripzio azkentuak arautu egiten dira, eta hori ez da kasualitatea, biak egoera berari buruzkoak bait dira, baina jarrera

⁷ Usukapioaren definizio hau topa dezakegu: ORTEGA CARRILLO DE ALBORNOZ, Antonio: *Derecho Privado Romano, Lección 8. Usucapión*, Malaga, Ediciones del Genal, 2010, 92.or.

desberdinetatik begiratuta. Alde batetik, eskubidearen titularrak ondasuna galdu egiten du, eta, bestetik, titular berriak ondasun hori eskuratzen du⁸.

Usukapioa, jabaria eta gainerako eskubide errealak eskuratzeko modu bat den bitartean eta Kode Zibilaren 609 eta 1.930.1 artikuluek argi eta garbi ondorioztatzen duten bezala, preskripzio azkentzailea, eskubideak eta akzioak azkentzeko arrazoa da, edozein motatakoak izanda ere, KZeko 1930.2. artikulua xedatutakoaren arabera⁹.

Alde hori nabarmendu egin du noizbait Auzitegi Gorenak, eta adierazi du usukapioaren helburua, preskripzioa azkentzailearen helburuaren guztiz kontrakoa dela. Lehenengoan, hau da, usukapioaren kasuan, sortu nahi dena da eskubide berri bat aurreko jabearen aurrean, zeinaren postuan juridikoki kokatzen baita mekanismo hori legez ezarritako baliabide eta formekin. Bigarrenak, aldiz, lortzen duen emaitza titularraren ekintza galtzea da.

Usukapioa eskubide errealak eskuratzeko modu bat izanez, haren arauketa Kode Zibilaren III. Liburuan topatuko dugu, hain zuzen ere, jabetza eskuratzeko modu desberdinei eskainia. Bestalde, preskripzioa, eskubide eta akzioak azkentzeko arrazoi gisa, edo, hobeto esanda, uziaren subjektu pasiboa titularraren aurrean balia daitekeen salbuespen gisa, eskubide subjektiboari buruzko titulu batean araututa egon beharko litzateke. Hori bait da, hain zuzen ere, beste Kode Zibil batzuek jarraitutako sistematika, hala nola, Alemaniako Kode Zibilak, Italiako Kode Zibilak... etb. Kode Espainiarrak, frantsesaren sistematikan oinarrituta, ez du eskubideen babesari buruzko libururik, eta, horregatik, preskripzio azkentzailearen figura sartu zuen betebeharrak eta kontratuei buruzko IV. liburuan.

⁸ DE VERDA Y BEAMONTE, José Ramón: *Algunas reflexiones sobre la usucapión “secundum” y “contra tabulas” a propósito de la sentencia del Tribunal Supremo de 21 de enero de 2014*, Revista Electrónica de Instituto de Derecho Iberoamericano, 2014, 140.or.

⁹ *También se extinguen del propio modo por la prescripción los derechos y las acciones, de cualquier clase que sean.*

3.1-Kontzeptua

Atal honetan, usukapioaren gaur eguneko kontzeptua azaltzen saiatuko gara. Eskuratze preskripzioaren lehen aztarnetara bidaiatzen badugu, ikusiko dugu bere lehen adierazpena XII Taulen Legean dagoela jasota. Beraz ikus daiteke usukapioaren irudia ez dela berria, Erroman K.a V mendean kokatu dezakegu¹⁰.

3.1.2-Usukapioaren kontzeptua gaur egun:

Usukapioaren lehen aztarnak aipatuta, gaur egunean kokatuko gara, non eta zer dagoen araututa aztertuz.

Kode Zibilaren 1930. artikulua ematen duen definiziotik abiatuko gara:

Por la prescripción se adquiere, de la manera y con las condiciones determinadas en la ley, el dominio y demás derechos reales¹¹.

También se extinguen del propio modo por la prescripción los derechos y las acciones, de cualquier clase que sean.

Usukapioari buruz aipa daitekeen justifikazioetako bat da, ondasun jakin baten jabe izaten amaitzen den edukitzailea saritzea, denbora jakin batean bere benetako jabearen erreakziorik ezagatik¹². Era berean, usukapioaren benetako oinarria egitatezko

¹⁰2015eko ekainaren 3ko “*La ley de las XII tablas*” eskuragarri <https://www.derechoromano.es/2015/06/ley-xii-tablas.html> web orrialde helbidean.

¹¹ AGren 1986ko maiatzaren 26ko sententzia (Tol 1734754). 1986ko martxoaren 26ko epaiak, eskuratze-preskripzioari buruzkoa, ondorio gisa ezartzen du usukapioa edukitzaren gainean oinarritzen dela, eta edukitza hori publikoa, baketsua eta etengabea izan behar dela; hau da, usukapioa egikaritzen duen pertsona, erabiltzailea, jabariaren, jabetzaren edo edukitzeko moduko eskubide errealaren jabe gisa jardutea, erabilera eta gozamen jarraitu baten bidez; etenik gabe. Ondorioz, eskubide erreal guztiak, eskubide izate hutsagatik, ezin direla usukapio bidez eskuratu ere aipatu egiten du.

¹² YZQUIERDO TOLSADA, Mariano: *Lecciones sobre posesión y usucapión*, Madril, Dykinson, 2002, 47-48. orr.

egoerei segurtasun handiagoa ematea da, juridiko bihurtuz, eta ez gauzaren jabea zigortzea axolagabekeriaz jokatzegatik¹³.

Usukapioaren barruan bi eremu bereiz daitezke:

Lehenik eta behin, eremu subjektiboa, KZren artikulutan garatua dago. Lege honen 1931. artikulua aipatu egiten du, *pueden adquirir bienes o derechos por medio de la prescripción las personas capaces para adquirirlos por los demás modos legítimos*. Gai diren pertsonen adierazpen horrek adin nagusikoei egiten die erreferentzia, jarduteko gaitasun osoa dutenak, adin txikikoak eta ezgaituak ez bezala, hauek, jabe izateko tutoreen laguntza behar bait dute.

Gainera, horri dagokionez, interesgarria izan liteke Kode Zibilaren 1956. artikulua aipatzea:

Las cosas muebles hurtadas o robadas no podrán ser prescritas por los que las hurtaron o robaron, ni por los cómplices o encubridores, a no haber prescrito el delito o falta, o su pena, y la acción para exigir la responsabilidad civil nacida del delito o falta.

Horrek esan nahi du, hasiera batean, ondasun higigarri baten jabetza lortzeko delitu edo falta jakin bat egin zuten pertsonak, ezin izango direla hartu ebatsitako edo lapurtutako gauzaren jabetzat. Egindako arau-hauste penalaren preskripzio epeak eta erantzukizun zibilarenak, usukapioaren ohikoak baino handiagoak dira, hori dela eta, haiek lehenetsi beharko dira.

Bigarrenik, usukapioaren esparru objektiboa Kode Zibilaren 1936. artikuluan definitzen da, *son susceptibles de prescripción todas las cosas que están en el comercio de los hombres*. Bistan da, artikulua esparru zabal bat erakusten duela, eta horren gainean jardun daitekeela. Hala ere, artikulua debeku bat ezartzen du, ezin direla erabili gizonen merkataritzatik kanpo dauden gauzak¹⁴. Gauzak eta eskubideak usukapitu daitezke, baina gozatu ahal izateko baldintza batzuk bete behar dituzte. Beraz, gauzek posible izan behar dute eta gizakien arteko merkataritzan egon beharko dira. Aipatu

¹³ AGE 1960ko ekainaren 11koa (RJ 1960, 2091).

¹⁴ YZQUIERDO TOLSADA, Mariano: *Lecciones sobre posesión...*, zit., 52. or.

beharra dago, aurrekoa kontuan hartuz, ondare publikoak kanpo geratzen dira, ezin izango dira usukapitu¹⁵.

3.2-Jabetza, usukapioaren helburu:

Usukapioak galdatzen duen betekizunen azterketarekin hasi baino lehen, eskuratze preskripzioaren helburua aztertuko dugu. Honako hau, edukitzan dugun ondasunaren jabetza lortzea da; horretarako lehenik eta behin, ondasun hori edukitzan izan behar dugu, eta denboraren poderioz, aurrerago azalduko diren baldintza batzuk betez, ondasun horren jabetza lortu ahal izango da¹⁶.

Jabetza-eskubidea gauza baten gainean izan daitekeen botere-maila gorena da, LA CRUZ BERDEJOk aipatu egiten duenez, *constituye la esfera de acción del dueño el poder mas pleno juridicamente posible sobre la cosa*¹⁷. Jabetza, jabearen borondatearen, eskusibotasunaren eta akzioaren mende dago, eta muga bakarrak legeak ezarritakoak edo egikaritze mugagabeen bateraezinak diren hainbat eskubideren konkurrentziak eragintakoak dira. Kode Zibilak, termino absolutuetan, gauza bat gozatu eta xedatzeko eskubidetzat definitzen du, legeek ezarritako mugak besterik gabe. EKren 33. artikulua, oinarrizko eskubidetzat onartzeaz gain, ezartzen du funtzio sozialak zehaztuko duela haren edukia, legeen arabera¹⁸. Beraz, titularraren askatasunarekin batera, nabarmendu behar da legeek mugatu egiten dutela bere ahalmenen egikaritzea. Konstituzio Auzitegiaren 37/1987 epaiak, zentzu horretan, adierazten du Konstituzioak jabetza

¹⁵ DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho Civil Patrimonial III, Las relaciones juridico-reales. El registro de la propiedad. La posesion*, Pamplona, Civitas, 2008, 808-809.orr.

¹⁶ MORENO-TORRES HERRERA, Maria Luisa: *La usucapión*, Madril, Marcial Pons, 2012, 50.or.

¹⁷ LA CRUZ BERDEJO, José Luis: *Elementos de derecho civil III, derechos reales, Posesión y propiedad*, Madril, Dynkinson, 2003, 238.or.

¹⁸ EKren 33. artikulua: 1. *Se reconoce el derecho a la propiedad privada y a la herencia. 2. La función social de estos derechos delimitará su contenido, de acuerdo con las leyes.* 3. *Nadie podrá ser privado de sus bienes y derechos sino por causa justificada de utilidad pública o interés social, mediante la correspondiente indemnización y de conformidad con lo dispuesto por las leyes.*

pribaturako eskubidea aitortzen duela, eta eskubide hori, gauzen gaineko ahalmen-sorta gisa eratzen eta babesten dela, baina, aldi berean, legeek ezarritako betebeharrak multzo gisa, kolektibitatearen balioak eta interesak, hau da, gizarte-xedea edo onura kontuan hartuta.

Kode Zibilaren 348. artikuluan dago jasota jabetza-eskubidearen definizioa, *la propiedad es el derecho de gozar y disponer de una cosa, sin más limitaciones que las establecidas en las leyes.*

*El propietario tiene acción contra el tenedor y el poseedor de la cosa para reivindicarla.*¹⁹.

"Jabetza" terminoaren kontzeptiorik zabalena edozein ondasunez, gorputzekoaz edo gorpuzgabeaz, jabetzeko harreman juridiko oro adierazten du²⁰. Egia da, halaber, azken urteotan gauza gorpuzgabeen gaineko jabetza-eskubidearen bilakaera garrantzitsua garatu dela, hala nola, jabetza industrialaren eta intelektualaren eskubidea²¹.

¹⁹ AKaren 1997ko martxoaren 20ko sententzia [RTC 1997,61] Jabetzaren edukiari eta mugei buruz mintzo da, eta Kode Zibilaren 348. artikulua eta Konstituzioaren 149.1.1. artikulua lotzen ditu. Artikulu horrek baimena ematen dio Estatuari espainiarrek izan ditzaketen jabetza-eskubideez baliatzean tratu-berdintasuna bermatuko duten oinarritzko baldintzak arautzeko. Horrela, jabeen ahalmenetan proiektzio desberdina saihestu nahi duten zenbait muga edo zortasun ezarri ahal izango dira.

²⁰ Definizio hori hurrengo obran topa dezakegu: CASTÁN TOBEÑAS, José: *Derecho Civil Español*, zit.

²¹Jabetza intelektualak, esan dezakegu, giza adimenaren sorkuntzetan proiektatzen dela, Estatuaren eta egilearen arteko itun bat justifikatuz, zeinaren bidez egileak bere sorkuntzaren proiektzioa sozialki onartzen duen, haren jabe gisa aitortzearen truke. Aldiz Jabetza industrialeko eskubideek babes handia merezi dute, kalteberak baitira, edonork erraz erabil baititzake. Jabetza industrialeko eskubideak bi taldetan banatzen dira: alde batetik, sorkuntza teknikoei buruzko eskubideak, hala nola patenteak, erabilgarritasun-ereduak, diseinu industrialak, landare-lorpeneko tituluak eta produktu erdieroaleen topografiak. Informazio hau IBERLEY web orrialdetik atera izan da, <https://www.iberley.es/temas/propiedad-industrial-intelectual-42621> helbidetik.

3.2.1-Jabetza eskuratzeko moduak:

Kode Zibilaren 609. artikulua jabetza eta gainerako eskubide errealak eskuratzeko moduak ezartzen ditu: *la propiedad se adquiere por la ocupación.*

La propiedad y los demás derechos sobre los bienes se adquieren y transmiten por la ley, por donación, por sucesión testada e intestada, y por consecuencia de ciertos contratos mediante la tradición.

Pueden también adquirirse por medio de la prescripción..

Ikus daitekeenez, 609. artikulua zerrendatu egiten ditu jabetza eskuratzeko moduak: okupazioa, legea, dohaintza, *traditioa*, eta usukapioa. Gure aztergaia usukapioa izanik, aipamen labur bat egingo diogu, lanean zehar aztertua izango bait da. Beharrezko ikusten dugu baita ere *traditioa* aztertzea, usukapioarekin lotura izan dezakeelako bere beharrezko baldintzak bete egiten ez badira.

Usukapioa:

Gure aztergaia izanik eta ondoren sakonean aztertuko dugunez, Usukapioa, eskuratzeko-preskripzioa edo preskripzio positiboa, gauza baten jabetza eskuratzeko modu bat da. Eskuratzeko-preskripzioa, denbora jakin baten barruan eta legeak ezarritako baldintzetan, ondasun higigarri edo higiezin bat izan duen pertsonari egokitzean datza.

Traditioa:

Zuzenbidean, pertsona fisiko edo juridiko bati gauza bat entregatzeko egintza da, bere arauketa Kode Zibilaren 609. eta 1.095. artikuluetan islatzen da²².

Ordenamendu juridiko askotan, *traditioa* eskualdaketa edo transferentzia bat da, eta jabetza eskuratzeko modu bat; izan ere, jabetza eskualdatzeko ez da nahikoa negozio bat egitea, baizik eta beste zerbait behar da, transferentzia modu bat. Horietako bati *traditioa* deitzen zaio.

²² Kode Zibilaren 1095. artikulua: *El acreedor tiene derecho a los frutos de la cosa desde que nace la obligación de entregarla. Sin embargo, no adquirirá derecho real sobre ella hasta que le haya sido entregada*

Jabetza eta gainerako eskubide errealak titular batetik bestera pasa daitezke. Espainiako transmisio-sistema titulu eta moduaren teorian oinarritzen da, transmisiorako beharrezkoak diren bi elementuak baitira. Titulua translazio xedeko kontratu zehatza da, eta modua edo *traditioa* ondasuna ematea edo ondasunaren jabetza eskualdatzea da.

Lehenik eta behin, nabarmendu behar dugu ondasun jakin bat kontratu baten bidez eskuratzeak, berekin dakarrela eskuratze eratorri bat egitea, eskuratzailer berriari eskualdatzen dion aurreko jabe baten titulartasunean du jatorria. Hala ere aipatu berri dugun teoria (titulu eta modua) ez da osatzen *traditioarekin bakarrik*; izan ere, KZeko 609. Artikuluaren xedapenera itzultzen bagara, konturatuko gara nola eskubide erreal baten titulartasuna aldatzeko, bi elementu beharrezkoak diren:

- Batetik, tituluak (*ciertos contratos*): domeinuaren translazio-helburua izan behar dutenak.
- Bestetik, entrega (*mediante tradición*), edo eskubidea duen gauza emanez.

Eskuratzailerak, beraz, jabetza-eskubidearen edo gauzaren gaineko beste edozein eskubideren titular bihurtuko da, baldin eta gauza eman bada eta entrega hori kasuan kasuko jabaria edo eskubide errealak eskualdatzeko egokia den kontratu batean oinarritzen bada. Hori da tituluaren eta moduaren teoriara garamatzana, erromatar *traditioaren* betekizunen formalizazio kontzeptualari erreferentzia egiten diona²³.

Azterketa lan honetan titulu eta moduaren teoria hartzea ezinbestekoa da. Tituluak eta *traditioa*, egonda ere nahiz eta eskualdatzeko *justa causa* bat eman, eskubidearen eratorrizko translazioa ez da gertatzen.. Esan dugun bezala, eskuratze eratorria nagusia *traditioa* da. Horregatik, erabiltzailerak okupatzailea ez bada, *accipiensak* izan behar du traditio-fenomeno baten ondorioz. Gainera, *traditioa*, *iusta causa* izan da. Usukapioaren oinarria izan daiteke eskuratzailerak gauza erosi, dohaintzan eman, ezkonsarian eman edo betebeharra ordaintzea.

Kasu horietan guztietan, transmisioa eragiten ez duen negozio translazioa dago. *Accipiensak* eskubidea eskuratzen ez duelako, hain zuzen ere, usukapioaren erremedioa sortzen da. Horregatik, burura datorkigun galdera da, eskubidearen transmisio

²³ DIEZ-PICAZO, Luis: *La tradición y los acuerdos translativos en el Derecho español*, Madril, Instituto Nacional de Estudios Jurídicos, 1966, 555-573. orr.

eraginkorra zergatik ez den gertatu. DIEZ-PIAZOren arabera, arazoa bi arrazoirengatik gerta daiteke.

Tradensa ez denean gauzaren benetako jabea. Eskuratzailerak *a non domino* eskuratu izan du ondasuna. Hau da usukapioaren ustezko tipikoa. Eskurapen bat *a non domino*, benetako eskurapen bihurtzen du.

Tradensa benetako jabea denean, baina translazio-negozia eraginkorra ez denean. Kasu honetan, usukapioak ez du funtzionatzen. Eskuratzaileraren jarrera finkatzen duena ez da usukapioa izango, baizik eta translazio-negoziaren eraginkortasunik eza baliarazteko akzioen iraungitzea²⁴.

3.3-Usukapioaren betekizunak

3.3.1-Betekizun orokorrak:

3.3.1.1-Edukitza

Aurreko epigrafean azaldu dugunez, usukapio edo preskripzio eskuratzaileraren bidez lortu nahi dena da ondasunaren jabetza. Hasiara baten, usukapioaren kontzeptua azaldu dugunean, aipatu izan da, *la adquisición de la propiedad mediante la posesión continuada en el tiempo*, beraz argi eta garbi ikusi daiteke, ondasun baten gaineko jabetza lortzeko, legeak ezarritako denbora zehatz bat igaro behar dela, hura edukitzan izanik²⁵.

Aipatu bezala lehenik eta behin, ondasuna eduki behar da, edukitzaren erregulazioa Espainiako Kode Zibilean jasota dago, hain zuzen ere, *Libro II, de la propiedad y de sus modificaciones, Título V, De la posesion*, 430-460 artikulua bitartean.

Gure Kode Zibilean edukitza arautzen duen araudia printzipio erromatarren, germanikoen eta XIX. mendeko Kode europarren eraginen konbinazio bat da.²⁶

"Edukitza" terminoa, bere esanahi juridikoan, nahasgarria da, ezin da kontzeptu unitario bat eman, askotariko gaiei aplikatzen baitzaie, hala substantiboei eta prozesalei.

²⁴ DIEZ -PIAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 828.or.

²⁵ Usukapioaren definizio hau topa dezakegu: ORTEGA CARRILLO DE ALBORNOZ, Antonio: *Derecho Privado Romano*, zit.

²⁶ O'CALLAGHAN MUÑOZ, Xavier: *Compendio de Derecho...*, zit., 184.or.

Kontzeptu honen inguruko definizio bat eman beharko bagenu, *situación de poder de hecho sobre las cosas o los derechos, a la que se otorga una protección jurídica provisional que no prejuzga su titularidad* dela esango genuke.²⁷

Ricardo De Ángel Yaguezek aipatu egiten du, edukitza ez dela eskubide baten edukiari dagokionez bere titularra balitz bezala jokatzea, titularra izan gabe, nahiz eta sarritan horrela definitu, baizik eta eskubide baten edukiari dagokionez, titular balitz bezala jokatzea, edozein izanda ere. Portaera soila edukitza da²⁸.

Hitzaren esanahi etimologikoari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu edukitza hitza gazteleraz “poseer” esaten dena, latinez *possessio* dela. *Possessio* hitza aztertzean, hitz horren familiako beste batzuk ditugula ikusiko dugu. Esan bezala *possessio* hitzetik, *possidere* hitza aurkitzen dugu, edukitzaile esan nahi duena, alde batetik *pos* edo *pose* ahalera adierazten duena eta beste alde batetik *sedere* jesartzea adierazten diguna²⁹. Zerbait esertzeari edo finkatzeari egiten dio erreferentzia, leku batean finko egotearen zentzuan. Kontzeptu arrunta aintzat hartuz, edukitzea gauzarekin kontaktu fisikoa mantentzea da. Beraz, edukitza hitzak lekuen gaineko instalazio bati egiten dio erreferentzia, atzemate fisiko materialari eta kanpokoari. Edukitzak bere definizioan esertzea edo finkatzea bezalako hitzak izatea ez da kasualitatea, edukitzak bere portaeran kostantzia bat eskatzen duela erakusten digu.

Edukitzaren ondorioz, pertsona batek gauzaren gainean duen eskubidea sortzen da. Edukitzak interdiktuzko babesa eragiten du, eta horrek edukitzaileari bere aldeko presuntzio ugari ematen dizkio, indarkeria debekatzean eta bake soziala lortzean oinarrituta. Edukitza onustetzat jotzen da beti, eta bi osagairen ondorioz gertatzen da: *corpura* eta *animus*³⁰. Alde batetik, *corpura*, gauzaren edukitza materiala eta berarengan berehalako eragina izateko aukera adierazten du. *Corpura*, interpreteek esaten dioten bezala, botere bat da, gauza baten gaineko jauntasun edo egitatezko harreman bat.

²⁷ RAEren web orrialdetik ateratako definizioa, <https://dle.rae.es/posesi%C3%B3n?m=form> helbidean.

²⁸ DE ANGEL YAGUEZ, Ricardo: *Apariencia jurídica, posesión y publicidad inmobiliaria registral*, Bilbao, Publicaciones de la Universidad de Deusto, 1975, 38. or.

²⁹ RAE hiztegiak emadako definizio eta hitzen latinezko hitzulketak.

³⁰ Edukitzaren bi elementu horiek, subjektiboak eta objektiboak, hurrengo obran aurkezten dira.: ORTEGA CARRILLO DE ALBORNOZ, Antonio: *Derecho Privado Romano*, zit., 140 y 141.orr.

BIONDIren esanetan, *corpusa*, hasiera batean, zentzu material eta fisikoan ulertu zen³¹. Hau espiritualizatzen joan zen, *corpusa* gauzarekin ezartzen den edozein egitatezko erlaziotzat onartzeraino. Beste alde batetik *animusa*, gauza jabe gisa edukitzeko borondatea³².

Edukitza, gauza baten gaineko edukitza materialean datzan arren, legeriak edukitzaile gisa aitortzen ditu gauza materialki ez duten pertsonak. *Ius possessionis* kontzeptuak gauza baten gaineko edukitza material eta zehatzari egiten dio erreferentzia, eta *ius possidendi* da pertsona batek gauza baten gainean duen eskubidea, baina beste batek materialki edukitzen duenean³³.

3.3.1.1.1-Edukitza motak:

Edukitza ez da eskubide bat, botere-egoera bat baizik; hau da, gauzaren gaineko atzemate materialeko egoera bat. Egoera hori eskubide batek babestuta egon daiteke, edo izatezko egoera gisa eratu daiteke.

Bereiz daitezkeen edukitza-motei dagokienez, sailkapen desberdinak egin daitezke. Horrek bidea irekiko digu lan honetan aztergai dugun gaia, usukapioa, gehiago ezagutzeko. Sailkapen horietako bakoitza aztertzean, ikus dezakegu lotura zuzena dutela usukapioarekin, eta tresna horren bidez lor daitekeela ondasunaren edo eskubide errealaren jabetza, haren gaineko jabetza-eskubide baten erabilerari ezker, luzaroan eta etenik gabe.

³¹ DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho Civil Patrimonial III*, Las relaciones juridico-reales. El registro de la propiedad. La posesion, Civitas 2008, 626-627.orr.

³² ORTEGA CARRILLO DE ALBORNOZ, Antonio: *Derecho Privado Romano*, zita., 140.orriaren azken paragrafoa. “Es el *animus* lo que distingue la posesión de la detención o mera tenencia”

³³ *Ius possessionis* eta *ius possidendi* kontzeptuen definizioak Iberley horrialden topa daitezke, <https://www.iberley.es/temas/concepto-posesion-60198> web helbidean.

Edukitzza naturala eta edukitzza zibila³⁴:

KZaren 430. artikulua bi edukitzza-mota horiek bereizten ditu, *posesión natural es la tenencia de una cosa o el disfrute de un derecho por una persona. Posesión civil es esa misma tenencia o disfrute unidos a la intención de haber la cosa o derecho como suyos.*

Sailkapen honen arabera, edukitzza naturala pertsona batek gauza bat edukitzea edo eskubide bat gozatzea da. Lehen begiratuan, edukitzza naturala edozein edukitzza da, edozein kontaktu fisiko edo material gauza batekin, nahiz eta hortik ondorio juridiko zehatzik atera ez. Jatorrizko Glosaren arabera, edukitzza naturala, ondasunaren izate hutsa besterik ez da, ondasunaren edukitzza soil³⁵. Edukitzza zibila, hori bera da, edukitzea edo gozatzea baina, gauza edo eskubidea norberarena izateko asmoari lotuta³⁶. Edukitzza zibilaren kontzeptuan, gure Kodeak intentzioaren edo *animusaren* osagaia barneratzen du: gauza edo eskubide hori bereak bezala izateko intentzioa. Pentsamolde tradizional baten arabera, asmo hori *animus dominirekin* parekatu beharko litzateke. Domeinua bereganatzeko borondatea da. Horrela, benetako jabe eta faltsua baino ez dira sartzen edukitzza zibilaren kategorian³⁷.

Edukitzza naturala, Erroman, ongiaren edukitzza soiltzat hartzen zen, zuzenbideak babesten ez zuena³⁸. Egitatezko edukitzza mota horretatik zenbait egoera ondoriozta

³⁴ Lehen sailkapen hau, bikainena bezala ulertu behar da, Erromatar Zuzenbidearen garaian ere gauzatzen baitzen. Aldiz, jarraian ikusiko ditugun gainerako sailkapenak "edukitzza" terminoak urteetan zehar hartu duen garrantziaren emaitza izan dira.

³⁵ DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 639. or.

³⁶ DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 637-640. orr.

³⁷ DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 639-640. orr.

³⁸ FERNÁNDEZ URZAINQUI, Francisco Javier: *El Código Civil*, Navarra, Aranzadi, 2000. Kode Zibilean jasotako manu edo artikulua bakoitzari buruzko jurisprudentzia luzea oinarri hartuta garatu eta iruzkintzen dira artikulua. Kode Zibilaren 430. artikuluari dagokionez (edukitzza naturala eta edukitzza zibila aipatzen ditu), Auzitegi Gorenaren 1983ko azaroaren 28ko Epaiak [RJ 1983, 6680] honako hau ezartzen du: jabe gisa eskuratu eta gozatzen den edukitzza soilik erabil daiteke jabetza eskuratzeko bide gisa, Izan ere, helburu horretarako edukitzeak ez du bakarrik 30 urte igaro behar etenik gabe (ondasun higiezin bada eta fede oneko eta titulu bidezko elementurik ez badu), baizik eta edukitze hori ez izatea edukitzza materiala edo jabetza naturala, eta bai jabetza

daitezke; alde batetik, gauza bat luzaroan edukitzeagatik eskubide bihur daitekeen egoera, usukapioa. Beste alde batetik, edukitzaileak, urtebete eta egun bat igaro ondoren, edukitza-akzioa izatea bere alde, Kode Zibilaren 460.4 artikulua araberan, *por la posesión de otro, aun contra la voluntad del antiguo poseedor, si la nueva posesión hubiese durado más de un año*³⁹.

Gaur egun, bi edukitza-motak bereiz daitezke; edukitzaile zibilak edukitzan duen ondasunaren titular gisa jarduten du, proiektio publikoa, baketsua eta etengabea duten egintza batzuen bidez. Aldiz, nahiz eta edukitza naturalean edukitza-asmoa egon, edukitza hori *ad interdicta* baino ez dago babestuta, eta ez *ad usucapionem*; horrek esan nahi du edukitzaile naturalak ezin izango duela ondasuna bereganatu, gauzaren jabetza bakarrik lortu ahal izango duela edukitza zibilaren bidez jarduten duenak⁴⁰.

Jabearen kontzeptuan egikaritzen den edukitza eta jabearen kontzeptuan ez beste batean egikaritzen dena⁴¹.

Kode Zibilaren 432.artikuluan ondasun eta eskubideen edukitza bi kontzeptutan izan daitezkeela aipatu egiten da, *la posesión en los bienes y derechos puede tenerse en uno de dos conceptos: o en el de dueño, o en el de tenedor de la cosa o derecho para*

zibila; Hau da, gauza bere egiteko asmoari lotuta edukitzea. Gainera, Auzitegi Gorenaren 1966ko urriaren 26ko Epaiak [RJ 1966, 4762] defendatzen du edukitza egitate gisa gauzak edukitzea dela, okupazio material hutsagatik, eta okupazio hori gauzaren edukitza propietzat jotzen denean bakarrik bihur daitekeela benetako jabetza-eskubide.

³⁹ Epe horretan jabeak bere jabetza modu egokian babestu ez badu, ezin izango du edukitza-akziorik egikaritu gauzaren edukitzailearen aurka, aldarrikapen-akzioak baizik Kode Zibilaren 348 artikulua araberan. Kasu horretan, jabeak 30 urtez erreklamatu ahal izango du jabetza.

⁴⁰ Bi edukitza-moten arteko bereizketan, garrantzi handieneko oharra da edukitza zibilean gauzaren jabe gisa jarduten duena, nahiz eta ez izan, gauzaren jabe izatera irits daitekeela, denbora igaro delako eta zenbait betekizun betetzen dituelako; edukitza naturalean, edukitzailea ezin izango da inoiz iritsi edukitza duen gauzaren jabe izatera.

⁴¹ Sailkapen horrek lotura zuzena du lehen adierazitakoarekin, Kode Zibilaren 430. artikuluan ere oinarritzen baita. Ulertzen da jabe izaeran edukitzen duenak bakarrik usukapitu ahal izango duela ondasuna. Gogoeta hori 447 Kode Zibilean topa dezakegu: “Sólo la posesión que se adquiere y se disfruta en concepto de dueño puede servir de título para adquirir el dominio”.

conservarlos o disfrutarlos, perteneciendo el dominio a otra persona; jabearen kontzeptuan, edo gauza edo eskubidearen jabea ez den kontzeptuan, horiek kontserbatzeko edo lupertzeko, jabaria beste pertsona bati aitortuz.

Edukitza jabe kontzeptuan, edukitza duen pertsonak ondasunaren jabearen itxura sortzen du, hirugarrenen aurrean egintza batzuk gauzatzearen bidez, edukitzak duen eskubidearen titularra dela ulertaraziz. Titular gisa edukitzearen kasuan, horren presuntzioa dago, eta ezin da behartu hura erakustera⁴². Egikaritzen den edukitza, badirudi daukan kontzeptuak ez duela zerikusirik edukitzaileak bere jabetzaren justifikazioari eta baliozkotasunari buruz izan ditzakeen sinesmen, ideia edo irudikapen mentalen multzoarekin⁴³.

Jabe izaeran ez den edukitzan, erabakigarria da edukitzailea ez harrotzea jabe gisa. Ez da jabea, ez du jabe izan nahi, eta ez du horrela jokutzen. Beste pertsona baten jabaria aitortzen du, benetako jabea izanik, edo edukitzailea jabe gisa. Jabe izaeran ez den edukitzaile kontzeptu horretan, ondasuna du eta hori mantentzeko edo lupertzeko, baina beste pertsona baten jabaria aitortzen du, eta onartzen du gauza itzultzeko betebeharra⁴⁴.

Gure Kodearen lehen iruzkingileek uste zuten bipartizio edo kontrajarpen desberdinak zirela, eta bereziki azpimarratu zuten gozameduna edo errentaria euren eskubidearen "edukitzaile zibilak" izan arren, ezin zirela gauzaren "edukitzaileak jabe gisa" hartu. Euren ustez, ezin da bakarrik jabe posizioa usukapitu, baizik eta beste eskubide erreal batzuk ere, gozameduna izan daiteke gauzaren edukitzaile, gozamen-eskubidearen titular gisa.

Edukitza norberaren izenean eta besteren izenean egiten dena⁴⁵.

Kode Zibilaren 431. Artikuluak, *la posesión se ejerce en las cosas o en los derechos por la misma persona que los tiene y los disfruta, o por otra en su nombre*, aipatu egiten du. Sailkapen honetan ez da aipatzen pertsona edukitzailearen titulartasuna, ondasunaren gainean botere bat egikaritzeko modua baizik.

⁴² O'CALLAGHAN MUÑOZ, Xavier: *Compendio de Derecho...*, zita., 190 or.

⁴³ DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 642-643.orr.

⁴⁴ DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 645.or.

⁴⁵ DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 649-653.orr.

Manuaren xedea ez da jabetzaren titulartasuna nori dagokion zehaztea, baizik eta hura gauzatzeari buruzkoa baino ez da. Dagokion pertsonak, bere izenean edo beste edozein pertsonak bere izenean egikari dezake edukitza, dagozkion edukitza-egintzak gauzatu.

Edukitza norberarentzat egikaritzen denean, horren bidez gauzatzen dira efektuak norberarentzat. Aldiz, edukitza beste pertsona bati gauzaten zaionean, edukitza ondorioztatzen diren ondore horiek mesedegarriak izango dira beste subjektu jakin bati begira, hirugarren bati begira.

Bitarteko edukitza eta berehalako edukitza⁴⁶.

Nahiz eta Kodeak ez duen beren-beregi aipatzen eskubide hori, doktrina eta jurisprudentiaren bidez modu bateratuan erabil daiteke edukitza bitartekoaren eta berehalakoaren arteko norgehiagoka. Banaketa hori egia esan, edukitzaren intentsitate-maila kontuan hartuta egiten dela esan daiteke edukitzeko moduan baino⁴⁷.

Eskema horren arabera, edukitzaile zuzena izango da gauzaren egitezko edukitzailea, eta edukitzaile bitartekaria izango da gauzaren edukitza efektibo eta materiala izateari uzten diona⁴⁸. Kasu honen adibiderik argiena etxebizitza baten errentamendu-kasuetan aurkitzen dugu; jabe soila gozamenean bitarteko edukitzailea izango da eta berehalako edukitzailea errentaria⁴⁹.

Berehalako edukitza, gauzaren edukitza zuzena daukagu, bitartekoaren kasuan, aldiz, hirugarren baten bidez edukitzen da. Adibide on bat da errentamendu-etxebizitza

⁴⁶ DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 647-649.orr.

⁴⁷ YZQUIERDO TOLSADA, Mariano: *Lecciones sobre posesión...*, zit., 18.or.

⁴⁸ Auzitegi Gorenaren 1997ko uztailaren 10eko Epaiak (RJ 1997, 5464) bitartekoen edukitzaren eta berehalako edukitzaren arteko bereizketari buruzko iritzia ematen du. Zuzeneko edukitza da, bitartekariaren presentziaren beharrik gabe egiten den hori. Bestalde, bitartekari baten esku-hartzearen bidez eskuratzen da bitarteko edukitza, beste bitartekari baten edukitzaren bidez, hain zuzen ere.

⁴⁹ Entziklopedia_juridikotik_ateratako_definizioa, <http://www.enciclopedia-juridica.com/d/posesi%C3%B3n-mediata-e-inmediata/posesi%C3%B3n-mediata-e-inmediata.htm>.

bat; etxebizitzaren jabeak bitarteko edukitza du, eta maizterrak berehalakoa. Horrek esan nahi du harreman juridiko bat ezarri dela edukitzaile ertainaren eta berehalakoaren artean⁵⁰.

Fede onaren edukitza eta fede txarraren edukitza⁵¹.

Edukitzaileak fede ona duen ala ez erabakitzeak edukitzaren izaera justu edo bidegabetik oso hurbil dagoen alderdi bat planteatzen du; izan ere, azken batean, edukitza gaitzen edo justifikatzen duen tituluekin lotu behar da onustearen edukitza.

Fede oneko edukitza aitortuta dago KZaren 433 eta 1950 artikuluetan. Bi artikuluen horien arteko konjuntzioaren eta erlazioaren arabera ulertu daiteke benetan hau zer den.

Onustedun edukitzailetzat hartuko da bere tituluan edo eskuratzeko moduan hura baliogabetzen duen akatsa dagoela ez dakiena⁵². Hortaz, edukitzaile erabiltzaileak edukitzaren legezketasunari buruzko sinesmena izan behar du *ad usucapionem*, eta aldi berean, edukitza ez-legitimoaren ezjakintasuna. Edukitzaile erabiltzaileak gauzaren jabetzat edo eskubide errealaren titulartzat jo beharko du bere burua⁵³.

Horrela, KZaren 433.artikuluaren arabera, edukitzaile onusteduntzat hartzen da: *se reputa poseedor de buena fe al que ignora que en su título o modo de adquirir exista vicio que lo invalide. Se reputa poseedor de mala fe al que se halla en el caso contrario*; bestalde, KZeko 1950 artikulua honako hau ezartzen du: *la buena fe del poseedor consiste en la creencia de que la persona de quien recibió la cosa era dueño de ella, y podía transmitir su dominio*.

433.artikuluak aipatutako fede onaren inguruan hitz egiten dugunean, ulertzen dugu edukitzaileak ez dakiela irregulartasun batzuk daudela, bai edukitzailearen tituluan, bai edukitza eskuratzeko moduan. Baina KZeko 1950 artikulua aztertzen hasten garenean,

⁵⁰ HERNÁNDEZ GIL, Antonio: *La posesión*, Madril, Civitas, 1980, 134. or.

⁵¹ DIEZ-PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 664.or.

⁵² Kode Zibilaren 433.artikuluak zera aipatzen du : *se reputa poseedor de buena fe al que ignora que en su título o modo de adquirir exista vicio que lo invalide. Se reputa poseedor de mala fe al que se halla en el caso contrario*.

⁵³ YZQUIERDO TOLSADA, Mariano: *Lecciones sobre posesión...*, zit., 18-20. orr.

possessio ad usucapionem arautzen duena, moduaren irregulartasunak bakarrik aipatzen ditu.

3.3.1.1.2- Edukitza eskuratzeko moduak

Ondasun jakin bat erabili ahal izateko, ezinbestekoa da ondasun hori edukitzea. Egia da usukapioaren betekizunak emateko hainbat betebeharrak eman behar direla, baina horietako lehena gauzaren edukitzea izatea da, aztergai dugun figura horren oinarri nagusia. Beraz, gauza jakin baten edukitzea eskuratzeko moduak ezagutzea komeni da, edukitzailearen *animusarekin* batera eta edukitzea egikaritzen ari den bitartean, ondasun hori usukapitu daitekeelarik.

Edukitza eskuratzeari eratorria edo jatorrizkoa izan daiteke. Lehenengo kasua aurreko edukitzaileak bere eskubidea galdu eta berriak eskuratzen duena izanik eta bigarren kasua, aldiz, eskuraketa *ex novo* gertatzen da⁵⁴.

Kode Zibilaren 438. artikulua ezartzen du: *la posesión se adquiere por la ocupación material de la cosa o derecho poseído, o por el hecho de quedar éstos sujetos a la acción de nuestra voluntad, o por los actos propios y formalidades legales establecidas para adquirir tal derecho*. Artikulu horretatik nabarmendu daiteke edukitzea eskuratzeko bi bide egon daitezkeela: gauza materialki geldiaraztearen bidez, edo edukitzea judizialki eskuratu.

Eskuraketa pertsona edukitzaileak berak egin dezake, edo haren izenean jarduten duen beste pertsona batek; hala jasotzen da KZaren 439. artikuluan, *puede adquirirse la posesión por la misma persona que va a disfrutarla, por su representante legal, por su mandatario y por un tercero sin mandato alguno; pero en este último caso no se entenderá adquirida la posesión hasta que la persona en cuyo nombre se haya verificado el acto posesorio lo ratifique*. Ikusi dezakegu KZk legezko eta borondatezko ordezkariak onartzen duela, negoziagarriak diren egintzez gain; izan ere, horiek alde batera uzten dute borondate-adierazpenen arloko ordezkariak dela gauzaren edukitzea eskuratzeko bide bakarra, beste pertsona baten bidez eskuratzen den kasuan. Konplexutasun handiagoko

⁵⁴ ALBALDEJO ABARCA, Manuel: *Derecho Civil*, III. Liburukia, *Derecho de Bienes*, Madril, Edisofer, 2016, 55.or.

azken kasuaren aurrean, edukitzaileak berretsi behar du mandaturik gabeko hirugarren edo kudeatzailearen kasua.

3.3.1.2-Usukapioaren baldintzak

Ondoren ikusiko dugunez, usukapioak funtsezko lau baldintza behar ditu, eta horiek gabe ezin da figura hori ezarri⁵⁵.

Lehen baldintza, **titular edo jabe izaeran edukitza izatea dugu**. Ondasuna duen pertsonak, hura erabiltzeko asmoz, ondasunaren jabearen itxura kanporantz proiektatuz jokatu behar duen egoerari deritzo. Kode Zibilaren 1941. artikulua ezartzen du, *la posesión ha de ser en concepto de dueño, pública, pacífica y no interrumpida*. 1941 eta 432 artikuluetatik ateratzen den ondorioa da, auzitegiek usukapioa balioetsi ahal izateko, alegatzen duen subjektuak titular gisa eduki behar izan duela ondasuna⁵⁶.

Kode Zibilaren 447. artikulua honako hau aipatzen du, *sólo la posesión que se adquiere y se disfruta en concepto de dueño puede servir de título para adquirir el dominio*. Beraz, errentari gisa edukitzen bada, adibidez, ezin izango da inoiz usukapitu, gozamenaren kasuan, egoera berean egongo ginateke.

Edukitza-kontzeptua, edukitzaileak ongiari dagokionez duen kanpoko jarrera da. Jabego adigaia finkatzen duena subjektuaren kanpoko portaera da, inoiz ez ageriko zeinurik ez duen asmo bat, ezta subjektuaren sinesmena ere⁵⁷. Jabe gisa edukitzeak ez du esan nahi bere burua jabetzat edukitzea, baizik eta kanpoaldera irudi hori azaltzea, besteek bera ondasunaren titularra izatea pentsatzea⁵⁸.

⁵⁵ Erosketa-preskripzioan bete behar diren lau baldintza orokorren definizio zuzen eta zehatza emateko: YZQUIERDO TOLSADA, Manuel: *Lecciones sobre Posesión y Usucapión*, Madril, Dykinson, 2002.

⁵⁶ KZaren432 artikulua: *la posesión en los bienes y derechos puede tenerse en uno de dos conceptos: o en el de dueño, o en el de tenedor de la cosa o derecho para conservarlos o disfrutarlos, perteneciendo el dominio a otra persona*.

⁵⁷ MORENO-TORRES HERRERA, Maria Luisa: *La usucapión*, zit., 80. or.

⁵⁸ DIEZ-PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 643.or.

Usukapioa gertatzen da ondasunaren erabiltzailea, edukitzailea denean; beraz, esan daiteke usukapioak bere eskubidea edukitzan oinarritzen duela aurreko puntuan azaldu dugun bezala, horrek bideratzen baitu edukitza gauzatzera. Era berean, ezin izango da erabili edukitzailea edukitza-ahalmena egikaritzen ari denean, lizentziaren edo gauzaren benetako edukitzailearen tolerantzia hutsaren ondorioz. Horren adibide bat da, etxe baten jabeak konfiantzazko lagun bati ematen dionean, etxean bizi den bitartean, lagun hori edukitzailea izango da, baina bakarrik etxearen titularrak mailegua eman diolako eta edukitzaile gisa jokatzeko lizentzia eman diolako.

Bigarrena, edukitza publikoa dugu. MORENO-TORRES HERRERA autoreak aipatu egiten duenez, jabetzan publizitatea dago, edukitza-egintzak inoren pertzepziarako egokiak direnean, gauzen erabileraren muga eta ezaugarri normalekin, sozialki aintzat hartutakoekin⁵⁹. Horrek esan nahi du edukitzaileak egindako egintzek publikoak izan behar dutela, klandestinoki gauzatzen badira ez baitute eraginik edukitzan⁶⁰. DIEZ-PICAZOK dio, edukitza publikoa dela, klandestino ez denean, betearazpen-egintzak eta edukitza-egintzak ezkutukoak ez direnean. Publikotasuna ez da soilik jabegoaren jatorriari edo hasierari buruzkoa izan behar; ezaugarri iraunkorra izan behar du⁶¹. Beraz, edukitzailea egiten dituen egintzak kanporatzen saiatzen denean, agerikoak izateko moduan egin behar du, gauzatzean publizitate arazoizkoa eta etengabea emanez. Baldintza hori edukitza eskuratzen den unean zein edukitzak irauten duen bitartean aplikatu beharreko baldintza da. Publizitate hori betetzat joko da edukitzen ari den ondasunaren izaera eta sozietateak inguruabar normaletan ematen dion erabilera normala kontuan hartuta.

Publizitate horren oinarria da, titulurik gabe edukitzen ari bada, benetako jabeak jakin ahal izatea eta, beraz, bere eskubideak erreklamatu ahal izatea ondasunari dagokionez. Publikoki egikaritzen den edukitzak jabe gisa izan behar du, usukapioa gerta dadin.

Hirugarrena, edukitza baketsua da. Aurretik aipatutako KZ 1941. artikulua arabera, ondasunaren jabetza eskuratzeko finkatuta dagoen denbora horretan era

⁵⁹ MORENO-TORRES HERRERA, Maria Luisa: *La usucapión*, zit., 92-97. orr.

⁶⁰ DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 655-656.orr.

⁶¹ DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 655.or.

baketsuan eskuratu eta erabili behar da jabetza hori eten gabe. Honek esan nahi du erabiltzaileak ondasunaren benetako jabearekin gatazkan jartzen bada, jabetza baketsua izateari uzten diola. Jabetza ez da indarrez mantendu behar, hasieran indarkeriaz edukitzea lortu bada, edukitza baketsua izango da indarkeria hori amaitu bezain laster eta beraz, indarkeria hori amaitzen denetik hasten da usukapitzeko epea⁶².

Argi dago indarkeriazko jabetza oro, ez dela baketsua eta bakezko jabetza oro, ez dela bortitza. Baina edukitza batek izaera baketsua gal dezake, bortxa behar izan gabe. Izaera bortitza edukitzari berari eragiten dion akats generiko bat den bezala, izaera baketsua edukitzaren betekizuna da usukapiorako⁶³.

Azkenik laugarren baldintza, edukitza etengabea da. Erabiltzaileak ondasuna behar den denboran eduki behar du, jabetza hori inoiz eten gabe; izan ere, kasu horretan, epea berriro eduki arren, hasieratik hasiko litzateke kontatzen⁶⁴. Ondasunaren benetako edukitzailearen erreklamazio soila, ez da ulertuko etenaldi egintza bezala. Eten ahal izateko arrazoiak Kode Zibilaren 1943. artikuluan eta hurrengoetan jasota daude, eta bi etenaldi mota bereizten dira, naturala eta zibila. Geldiarazpen naturala gertatzen da, arrazoi jakin baten ondorioz edukitzaileak edukitza urtebete baino gehiagoz amaitzen den unean; eta geldiarazpen zibila gertatzen da epaileak edukitzaileari egindako zitazioaren ondorioz, nahiz eta hori epaile eskugabearen aginduz gertatu⁶⁵.

Edukitza uzteaz edo edukitza izatearen nahia alde batera uzteaz hitz egiten denean, pentsa daiteke, automatikoki, domeinutik kanpo geratu dela, baina kontuan eduki behar dugu beste efektu batzuk ematen direla, esate baterako konputatutako denboraren etenaldia, ulertzen da jarraitutasuna galdu dela, baldin eta une jakin batean edukitzaileak ahalmen hori jendaurrean erabiltzeari uzten badio, ugazabarena ez den beste edozein kontzeptutan. Era berean, esanbidez aitortzen bada edukitzailea ez dela gauzaren titular legitimoa, horrek ere eten egiten du edukitzaren jarraitutasuna usukapitu ahal izateko.

⁶² MORENO-TORRES HERRERA, Maria Luisa: *La usucapión*, zit., 95. or.

⁶³ DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 659-660.orr.

⁶⁴ YZQUIERDO TOLSADA, Mariano: *Lecciones sobre posesión...*, zit., 55. or.

⁶⁵ MORENO-TORRES HERRERA, Maria Luisa: *La usucapión*, zit., 97. or.

3.3.2-Betekizun bereziak

Horrela, usukapioari buruz hitz egin ahal izateko, nahitaez bete behar diren baldintza orokorrak azaldu ondoren, bi usukapio-motak bereizten dituzten bi baldintza bereziak aztertuko ditugu. Horiek izango dira baliozko titulua eta fede onaren betekizunak⁶⁶.

Baliozko tituluaren betekizuna fede onarenarekin batera hartu behar da kontuan. Kode Zibilaren 1940. eta 1955. artikuluen arabera, betekizun konkurrenteak baitira. Lehenengoa elementu objektiboa da: kanpoko gertaera independentea. Fede ona elementu subjektiboa da: pertsonaren egoera animikoa, etikoki bidezkoa eta babes juridikorako duina den portaera sortzeko gai dena. Jarrera subjektiboa, berez, ez da aski usukapioa ondorio juridiko gisa determinatzeko. Laguntza objektiboa behar du, egitatea, titulua⁶⁷.

Alde batetik , fede onaren baldintza Kode Zibilaren 433. artikuluan dago jasota:

Se reputa poseedor de buena fe al que ignora que en su título o modo de adquirir exista vicio que lo invalide. Se reputa poseedor de mala fe al que se halla en el caso contrario. Horrek pentsarazten digu, edukitzailea ondasun jakin bat eskuratzen saiatzen den unean, onustearen baldintza horren aurrean, gogoan duela edo ulertzen duela ondasun horren gainean duen titulartasuna egiazkoa dela, bai eta transmititzen duen pertsonaren xedatze-ahalmena ere⁶⁸. Fede ona, eskubide errealeen esparruaren barruan, ezagutza-egoera bat da, horrela baitago ezarrita Kode Zibilaren 433. eta 1950. artikuluetan, ez baitu zerikusirik trikimailu edo engainuarekin, baizik eta ongiaren egoera sinestarekin edo ez jakitearekin⁶⁹.

⁶⁶ Azaldu berri diren lau baldintza orokor horiek nahitaez bete behar dira, azken helburua, edukitzaren bitartez ondasunaren jabetza eskuratzeko, hau da, ondasuna usukapioaren bidez lortzeko. Baina bi usukapio-mota bereizten dira, funtsean, edukitzaileak, edukitza-eskubide hori erabili behar duen aldian, fede onaren eta baliozko tituluaren baldintza berezien eraginpean.

⁶⁷ DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 828-829.orr.

⁶⁸ YZQUIERDO TOLSADA, Mariano: *Lecciones sobre posesión...*, zit., 18-20. orr.

⁶⁹ Kode Zibilaren 1950 artikulua adierazten du: *la buena fe del poseedor consiste en la creencia de que la persona de quien recibió la cosa era dueña de ella, y podría transmitir su dominio.*

Beste alde batetik, bidezko tituluaren baldintza Kode Zibilaren 1952. artikuluan honela araututa aurkezten dugu, *entiéndese por justo título el que legalmente baste para transferir el dominio o derecho real de cuya prescripción se trate*. Titulu justua eskubide erreala eskualdatu ahal izateko nahikoa den titulu-kontzeptua da, baina akats bat du eskubide errearen eskualdaketari dagokionez, normalean eskualdatzen duena benetan jabe ez izatea izaten dena. Egoera hori usukapioarekin salbatzen da, eta usukapio horrek jabetza-eskubidea eskuratzea ahalbidetzen du⁷⁰.

Edukiztaileak, onustearen eta bidezko tituluaren betekizun bereziekin betez gero, onuradun izango da eta edukitza izateko epeak laburragoak izango dira. Kasu honetan ohiko usukapio egoera aurrean gaude⁷¹. Bi baldintza horiek, fede ona eta baliozko titulua, egotea ezohiko usukapioaren eta usukapio arrunta bereiztea edo desberdintzea ahalbidetzen dute; horrek esan nahi du, ondasun jakin bat usukapitzen saiatzen bagara, eta ez badugu fede onik edo jabetza edo eskubide erreala eskuratzeko titulu zuzenik, ezohiko usukapio-egoera baten aurrean egongo ginatekeela.

Ikusi berri ditugun bidezko titulu eta fede onaren betekizun berezietz gain, bi usukapio motak bereizten dituen beste ezaugarri bat dugu, betekizun horiek betetzearen edo ez betetzearen ondorio zuzena dena: erabili nahi den ondasunaren eskubide erreala edo jabetza eskuratzeko igaro behar den epea edo denbora-tartea.

Horrenbestez, epe hauek bete behar dira⁷²:

Ohiko usukapioaz ari bagara, fede onaren eta bidezko tituluaren betekizunak betetzen dituenak. Erabiltzaileak hiru urteko epea izango du ondasun higigarri bat eskuratzeko, eta 10 urteko epea ondasun higiezinak bada.

Ohiz kanpoko edo ez ohiko usukapioan, fede onaren betekizun berezia edo bidezko titulua ez dagoenez, usukapio arruntak baino iraupen luzeagoko epeak bete beharko ditu. Horrenbestez, sei urteko epea errespetatu behar du ondasun higigarri baten

⁷⁰ MORENO-TORRES HERRERA, Maria Luisa: *La usucapión*, zit., 107-109.orr.

⁷¹ DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 828-829.orr.

⁷² DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 8833-834.orr.

jabetza eskuratzeko, eta hogeita hamar urteko epea ondasun higiezin baten eskubide errealik osoena lortu nahi badu.

3.4-Ohiko eta ez ohiko usukapioa

Arestian aurreratu dugunez, usukapio arruntak ezohiko usukapioak baino betekizun gehiago eskatzen ditu; izan ere, ohiz kanpoko usukapioaren kasuan jabaria, Kodean ezarritako denboran zehar edukitza jarraituaren bidez eskura badaiteke ere, usukapio arruntaren bidez eskuratzeko, gainera, "bidezko titulua" eta fede ona eskatzen dira, Kode Zibilaren 1.940. artikulua ezartzen duen bezala:

Para la prescripción ordinaria del dominio y demás derechos reales se necesita poseer las cosas con buena fe y justo título por el tiempo determinado en la ley.

Hau da, erabiltzailea gauza edukitzen ari da, uste izanik gauza horren jabetza eskualdatu ziona benetako jabea zela, eta, gainera, eskualdaketa hori egiteko gai den baliozko tituluaren bidez eskuratu duela. Betekizun "berezi" horiek eskatzen direnez, usukapio arruntak ohiz kanpokoak baino epe laburragoak ditu; izan ere, erabiltzailea edukitzaile kualifikatuagoa da ohiz kanpokoak baino. Zehazki, ondasun higigarrien ohiko usukapioak hiru urteko epea du, eta ez ohiko usukapioak, sei urtekoa; higiezin ohiko usukapioak, berriz, hamar edo hogeitaurtekoa, eta ohiz kanpoko usukapioak, hogeita hamarrekoa⁷³.

Guzti horren ondorioz, usukapio arruntean bakarrik kokatzen da bidezko titulua; izan ere, usukapio horrek bakarrik eskatzen dio erabiltzaileari, teoriarik, domeinua transmititzeko gai izango zatekeen titulu baten bidez eskuratu izana, geroago ikusiko dugunez, inefikaza izango ez balitz⁷⁴.

Gainera, usukapio arruntaren barruan baliozko tituluaren betekizuna eskatuko da, ondasun higiezin usukapioaren kasuan bakarrik, Kode Zibilaren 1.955 artikulua jasotzen duen moduan, ondasun higigarrien ohiko usukapioaren betekizunak ezartzean, honako hau baieztatzen du: *el dominio de los bienes muebles se prescribe por la posesión no interrumpida de tres años con buena fe.*

⁷³ DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 825-833.orr.

⁷⁴ YZQUIERDO TOLSADA, Mariano: *Lecciones sobre posesión...*, zit., 58. or.

Hau horrela dela esan dezakegu Kode Zibilaren 464. artikulua dioenaren arabera, *la posesión de los bienes muebles, adquirida de buena fe, equivale al título*. Ondorioz, ondasun higigarri baten edukitza badago, eta, gainera, fede ona, ez da titulu zuzenik behar, titulu hori existitzen dela uste baita edukitza eta fede ona izateagatik, Kode Zibilaren 464. artikulua arabera.

Kode Zibilaren 1940 artikulua aipatzen duen bezala, atal honen sarrera txikian azaldu berri duguna jasotzen du, baliozko titulua eta fede ona usukapio arruntaren ezinbesteko betekizun bereizleak direla.

Kode Zibileko 1952. artikulua *entiéndese por justo título el que legalmente baste para transferir el dominio o derecho real de cuya prescripción se trate*. Xedapen horrek nolabaiteko aitorpena du epai batzuetan, eta horien artean aipatzekoa da Auzitegi Gorenaren 2001eko abenduaren 28ko Epaia, non esaten baita, bidezko titulua behar bestekoa izan behar duela preskribatu behar den jabaria edo eskubide erreala transferitzeko.

Kode bereko 1953. artikulua, *el título para la prescripción ha de ser verdadero y válido*, adierazten du. Hemen aipatutakoaren arabera, AGren 2018ko otsailaren 5eko epaian emandakoak lekua du; ... *establece que el justo título es aquél que es idóneo para la transmisión del derecho de propiedad u otro derecho real que es verdadero y válido pero que, aun adoleciendo de un defecto, éste es salvado por la usucapión*⁷⁵. Horrek esan nahi du titulua gainean akats edo bizioren bat egonez gero, titulu hori ez dela balio gabetzat joko, haren gainean dauden akatsak konpontzeko aukera baitago⁷⁶.

1954. artikulua, *el justo título debe probarse; no se presume nunca* aipatu egiten du, lege bereko 448. artikuluaekin bat egiten duena honako hau esanez, *el poseedor en concepto de dueño tiene a su favor la presunción legal de que posee con justo título, y no se le puede obligar a exhibirlo*. AGren 1999ko maiatzaren 22ko epaiaren arabera, artikulua aipatutakoa soilik kontuan hartu behar da, baldin eta auzi-jartzaile aldarrikatzaileak, ez badu frogatzen aldarrikatutako ondasunaren titulartasuna, edukitzaileak jabe gisa, ez du eskuratze-titulartasuna frogatu behar, baina auzi-jartzaile

⁷⁵ Aipatutako jurisprudenzia: FERNÁNDEZ URZAINQUI, Francisco Javier.; *El Código Civil*, zit.,

⁷⁶ YZQUIERDO TOLSADA, Mariano: *Lecciones sobre posesión...*, zit., 58. or.

aldarrikatzaileak frogatzen badu, jabe izaeran edukitza duen horrek, bere aurka egikaritzen ari den akzioa azkentzeko egitatea frogatu beharko du, eta horrek ez du Kode Zibilaren 448. artikuluan jasotako presuntziotik salbuesten⁷⁷.

Bidezko titulua, usukapioaren ondoriozko efektuei dagokienez, ezinbesteko osagaitzat hartzen da gauzaren edukitza eta jabetza eskuratzeko arrazoitzat balio duen egitatea. Baina betekizun horrek, aldi berean, lortu nahi diren efektuak eragiteko egokitzat identifikatzen duten ezaugarri batzuk ere izan behar ditu⁷⁸. Horregatik, tituluak honako hau izan behar du: bidezkoa, egiazkoa, baliozkoa eta frogatua; horiek Kode Zibilaren 1953 eta 1954. artikuluetan jasota daude, aurretik aipatu izan ditugunak.

Bidezkoa;

Bidezko tituluaren definizio bat ematen saiatzen bagara esan dezakegu, erregela juridikoen arabera, gauza baten jabaria nahiz horren preskripzioan oinarritzen den eskubide erreala eskualdatzeko nahikoa dena, eta gainera, titulu horrek ez duela inolako akatsik edo akatsik izan behar.

Guillermo Cabanellas de Torresen Oinarrizko Hiztegi Juridikoak titulu justuari buruz ematen duen trataerak aipatu egiten du, pertsona batek eskubide bat duela edo legitimoki eskuratu duela zehazten duen oinarria da, bai eta eskuratzeko-egintza egiaztatzen duen agiria ere.

Baliozkoa⁷⁹:

Titulua baliozkoa izan dadila eskatzeak esan nahi du, eskualdatzailea jabea balitz, eskubidea eskualdatzeko nahikoa litzatekeen titulua izatea. Dagokion egintza zehatzerako lege-baldintza guztiak betetzen dituen da. Beraz, kanpoan geratzen dira zuzenbide osoko titulu deuseza eta existitzen ez den titulua. Jurisprudentziak ezarri duenez, baliozkoak dira kontratu deuseztagarriak, hutsalgarriak, ezeztagarriak edo suntsigarriak, nahiz eta, lehen esan bezala, denak ez liratekeen baliozkotzat jo behar, baizik eta soilik baliozkotzat jotzen direnak, titulartasun-akatsak edo ondasunaren gaineko transmisio-ahalmenak izateagatik.

⁷⁷ Aipatutako jurisprudentzia: FERNÁNDEZ URZAINQUI, Francisco Javier: *El Código Civil*, zit. Kode Zibilaren artikulua bakoitza aipatzen saiatzen da.

⁷⁸ YZQUIERDO TOLSADA, Mariano: *Lecciones sobre posesión...*, zit., 61-64.orr.

⁷⁹ DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit., 830.or.

Egiazkoa⁸⁰:

Kode Zibilaren 1953. artikulua baliozko titulua izan behar duen "egiazko" ezaugarria aipatzen du, eta horren existentziak benetakoa izan behar duela aipatzen du. Benetako titulua benetako existentzia duena da, eta, beraz, ez da bidezkoa izango titulu putatiboa, negozio simulatu baten ondoriozko titulua eta, egon arren, ebatzi, hutsaldu edo deuseztatu direnak.

Frogatua⁸¹:

Ezaugarri hori Kode Zibilaren 1954. artikuluan islatzen da, aurretik aipatu dugun bezala. Baliozko titulua ez da inoiz presumitu behar, beti frogatu behar du titulu hori duela uste duenak.

Inoren gauza izan duenak Kode Zibileko 448. artikuluko tituluaren presuntzioa izanen du⁸². Baina benetako jabeari aurre egiten dionean, jabetza ohiko usukapioaz kendu ahal izango du, jabetza zein titulutan oinarritu zuen frogatzen badu⁸³.

3.5-Usukapioaren efektuak

Usukapioaren iruditik ondorio batzuk atera daitezke, jarraian labur-labur azalduko ditugunak, lan honen funtsezko eta garrantzi handieneko gaia garatu ahal izateko: usukapio.

Efektu horien artean, alde batetik, usukapio bidezko eskuratzearen izaera azpimarra dezakegu, figura hori ondasun edo eskubide erreal baten jabetza edo eskuratzeko jatorrizko moduetako bat baita. Erabiltzailea jabe bihurtzen da, aurreko titularra zen bezalaxe; hori gertatu dadin aurretik aipatutako baldintza edo betekizun guztiak bete beharko dira. Gerta daiteke, halaber, ondorio desberdinen artean, *ipso iure* efektua ematea eta irabazitako usukapioari uko egitea, Kode Zibilaren 1935. artikulua adierazten duen

⁸⁰ MORENO-TORRES HERRERA, Maria Luisa: *La usucapión*, zit., 113-114.orr.

⁸¹ YZQUIERDO TOLSADA, Mariano: *Lecciones sobre posesión...*, zit., 64.or.

⁸² Kode Zibilaren 448 artikulua: *El poseedor en concepto de dueño tiene a su favor la presunción legal de que posee con justo título, y no se le puede obligar a exhibirlo.*

⁸³ YZQUIERDO TOLSADA, Mariano: *Lecciones sobre posesión...*, zit.,64.or.

moduan: *las personas con capacidad para enajenar pueden renunciar la prescripción ganada pero no el derecho de prescribir para lo sucesivo.*

Entiéndese tácitamente renunciada la prescripción cuando la renuncia resulta de actos que hacen suponer el abandono del derecho adquirido.

Manu horren ondorioz, doktrinaren zati handi batek uste du usukapioak sortzen duen eskubidea galtzearen efektua aurreko titularrarentzat dela eta, ondorioz, eskuratzearen efektua erabiltzailearentzako dela, baina hori ez da automatikoki gertatzen, usukapioa gauzatzen ari den pertsonaren borondatea beharrezkoa da. Hau da, usukapioan emango dira alde batetik, pertsona batek eskubide errearen edo edukitzen ari den ondasunaren bitartez jabetza eskuratzea, eta bestetik, preskripzio azkentzailea, zeina gertatzen baita pertsona batek, ondasun baten jabe izanik, ondasun hori erreklamatzeko ez duenean eta, aldi jakin batean, horren jabe gisa egikaritzen ez duenean ondasun horren gaineko eskubide erreala. Eskuratze eta azkentze usukapioaren epea berbera da, izan ere, jabe baten eskubide erreala preskribatzen den unean, eskubide hori egikaritzen ari zen beste batek eskuratzen du. Horretarako, ohiko edo ezohiko usukapio kasuetan adierazitako epeetara jo behar dugu, bai eta ondasun higigarri edo higiezin baten erosketaren aurrean gauden ere.

Efektuen artean, ondoreen atzeraeragina ere aipa daiteke, usukapioa atzeraeraginezko ondorioekin jarduten duen erosketa-titulua, izan ere, behin hori burututa, haren ondorioek *ad usucapionem* edukitza hasi zen unera egiten dute atzera. Horrek esan nahi du, ALAS RAMOS eta DE BUENek dioten bezala, behin epea amaituta, uste dela onuradunak usukapioa hasi zenean eskuratu zuela dena delako gauza edo eskubidea. Epe horretan egindako egintzak baliozkoak izango dira, eta, aldi berean, benetako titularrak gauzatutako egintza guztiak ez dira eraginkorrak izango. Hori dela eta, *ad usucapionem* edukitzailearen egintza xedatzaileak ez dira eraginkorrak, egintza horiek gauzatzean, ez zuen eskubidearen titulartasunak ematen duen legitimaziorik, eta, hala badagokio, egintza horien ondorioz eskuratu zuena babesten bada, ez da usukapioaren ustezko atzeraeraginagatik, baizik eta hirugarrenak babesteko arauak aplikatzeagatik⁸⁴.

⁸⁴ DIEZ -PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho...*, zit.,840.or.

Azkenik, usukapioaren ondoretzat har dezakegu usukapio askatzailea, jabeak bere karga-jabetza usukapioaren bidez aska dezakeela esan nahi duena. Izendapen horren bidez, edukitza-kontzeptu jakin batean, ondasun zergapetu bat duenak, ondasun libre gisa eta ez dakienean karga dagoela gertatzen den egoera aipatzen da. Beraz, usukapioa kontsumitzean, ondasun hori zuen eskubidearen titulartasuna ez ezik, hura ukitzen zuen karga ere kentzen dio⁸⁵.

Egoera honetan, usukapio askatzailean, bi zati bereizten ditugu, bere jabetza kargetatik askatzen duena eta bere gain zuen karga galtzen duena. Beraz, askatzeak esan nahiko luke hasiera batean kargatutako jabetza-egoera dugula, besteak beste, usufrukto edo zortasunaren bidez eta eskubide erreal mugatu baten bidez⁸⁶. Kasu honetan, jabetza ez da osoa; beraz, jabea karga erabiltzen ari da, kargatutako jabetza batetik jabetza oso batera igarotzea lortzeko⁸⁷. Logikoa denez, ez du horretarako titulurik, eta, beraz, karga existitzen da eta baliozkoa da, baina titularrak ez du erabiltzen, eta beraz, jabe mugatuari aukera ematen dio hala balitz bezala jarduteko. Usukapio horretarako epea, ohiz kanpoko usukapioa izan ohi denez, usukapioaren iraupen bera izango da; hau da, ondasun higigarriak, sei urte eta ondasun higiezinak, hogeita hamar urte. Baina jabetzaren gaineko karga horrek, erabili ahal izateko, itxura eta jarraitutasun-betekizunak izan behar ditu, eta, gainera, bateraezina izan behar du jabetzarekin⁸⁸.

⁸⁵ YZQUIERDO TOLSADA, Mariano: *Lecciones sobre posesión...*, zit.,67-68.orr.

⁸⁶ Usufruktoa horrela defini daiteke: *derecho real de goce que permite a una persona disfrutar de los bienes ajenos con la obligación de conservar su forma y sustancia, a no ser que el título de constitución o la ley autoricen otra cosa (regulado en el art. 467 del CC). Se caracteriza básicamente por el disfrute de la cosa que otorga al titular del derecho, más que por la obligación de devolverlo sin alteración alguna. Puede recaer sobre bienes muebles e inmuebles y tiene una duración limitada.* Hitz honen definizioa entziklopedia juridikoan topa daiteke, <http://www.enciclopedia-juridica.com/d/usufructo/usufructo.htm> helbidean.

⁸⁷ Era berean aurrean aipatu izan dugun entziklopedia juridikoak zortasuna horrela jasotzen du: *derecho real consistente en el gravamen impuesto sobre un predio en beneficio de otro perteneciente a distinto dueño. Es derecho real de goce o disfrute que se caracteriza por su accesoriadad-y-por-su-indivisibilidad.*

<http://www.enciclopedia-juridica.com/d/servidumbre/servidumbre.htm>

⁸⁸ DÍEZ-PICAZO, Luis y GULLÓN, Antonio: *Sistema de Derecho...*, zit.

4- JURISPRUDENTZIA: SENTENTZIA ANALISIA.

Aztertzen ari garen gaiari dagokionez, garrantzitsua da epai bat aipatzea, usukapioaren harrera edo garrantzia islatzeko, eta horregatik aztertuko dugu Balearretako Probintzia Auzitegiak 2015eko irailaren 28an emandako epaia. Epai honen bidez, ez ohiko usukapioa baiesteko arrazoiak aztertuko ditugu, bai eta ondasunaren edukitzaren bidez jabetza eskuratzeko eskatzen diren baldintzen azterketa ere.

Lehenik eta behin, sententziaren gaia eta mamia aztertuko dugu kasuaren aurrean kokatu ahal izateko.

Prozedura hau demanda bidez hasi zen Crespí Tortella prokuradoreak, Tatiana, Cecilia eta Magdalena aktoreen izenean, epaileak deklaratu zedin usukapio bidez, erregistro-finka baten erdi zatiezinaren jabetza eskuratu zutela. Epaian ikusi daitekeenez bi alderdi daude, alde batetik usukapio bidez finka zatiezinaren erdia bereganatu zutela suposatzen den alderdia, hau da Tatiana, Cecilia eta Magdalena; eta beste aldetik Encarna, finka horren beste erdiaren jabea.

Erregistroko finka osoa Marí Trinirena zen, 1950ean hil zena, eta notarioak baimendutako testamentuaren arabera, Encarna ,Guadalupe eta Elsa jaraunsle izendatu zituen. Guadalupe eta Elsa ahizpek, 1965eko azaroaren 26an saldu zioten Juan Pedrori finka zatiezinaren erdia; beste erdia demanda honen beste alderdiari zegokion, Encarnari.

Juan Pedro jaunak, salerosketa kontratua horren bidez, eta finka zatiezinaren erdiaren gaineko jabe izanez, hiltzean, bere emazte eta alabei jaraunspenaren bidez jabetza hori igaro zien. Demandatua zena, Encarna, salerosketa momentuan gertaeren berri ez zuela adierazi egin zuen, aldarrikatuz, adingabea zela eta 1966an Frantzia bizi izan zela. Hori kontuan izanda, Guadalupek eta Elsa,k aipatutako salerosketa kontratua gauzatu zuen Juan Pedroekin, finka zatiezina saltzerako. Hori dela eta, epaileak salerosketa kontratu hori deuseztatu egin zuen. Guzti hori kontuan izanda epaileak usukapioa gauzatzeko baldintzak bete izan diren aztertuko du eta demandatzaileak finka horren gainean boterea duten.

Sententzia honetan ikusi dezakegu, alde batetik, usukapitu ahal izateko 30 urteen konputazioa bete izan bazen, eta beste alde batetik, ondasunaren edukitza baketsua izan bazen.

Alde batetik, adierazi izan dugun bezala, zalantzan jarri egiten da, ea ez ohiko usukapioa emateko 30 urteak bete izan badira. Epaileak KZaren 1960. artikulua edukia aztertzen du, eta honek kasuan duen aplikazioa: *en la computación del tiempo necesario para la prescripción se observarán las reglas siguientes:*

1.ª El poseedor actual puede completar el tiempo necesario para la prescripción, uniendo al suyo el de su causante.

2.ª Se presume que el poseedor actual, que lo hubiera sido en época anterior, ha continuado siéndolo durante el tiempo intermedio, salvo prueba en contrario.

3.ª El día en que comienza a contarse el tiempo se tiene por entero; pero el último debe cumplirse en su totalidad,.

Epaileak adierazi egiten du, aktoreek ez zutela berez Juan Pedroren jaraunspena onartu, ez esanbidez, ez isilbidez, beraz, ezin zutela edukitza-denbora batu euren kausatzailearenarekin, eta demanda ezetsi behar zela ondorioztatu zuen, hogeita hamar urteko epea igaro ez zelako.

Guzti hau kontuan hartuta, aktore-errekonbentzituen ordezkartza prozesalak, adierazi zuen epaiketaren aurreko audientzian, besteak beste, 30 urte baino gehiagoko edukitza, onartutako egitate gisa finkatuta geratu zela. Kode Zibileko 440. artikulua arabera, *el que válidamente repudia una herencia se entiende que no la ha poseído en ningún momento*, eta demandatzaileek ez zuten arbuiatu aitaren eta senarraren jaraunspena, ulertzen zen jarauntsia etenik gabe izan zutela, eta Juan Pedrok gauzatutako denbora eta demandatzaileena batu zitekeela. Beraz usukapioa emateko zalantzan jartzen ziren beharrezkoak diren 30 urteak frogatutzat geratu egin ziren.

Bestalde, demanda honen gaztaka, edukitza baketsua egon bazen edo ez, frogatzea izan zen. Encarna andereak azpimarratu egin zuen, edukitza ez zela baketsua izan. Baina epaian ikusi egiten da, alderdi demandatuaren ordezkartzak, nahastu egiten zituela

edukitza baketsuaren kontzeptua eta baliozko titulua, azken hau preskripzio arrunterako baino behar ez den betekizuna izanik, Kode Zibilaren 1940. artikuluan arautua⁸⁹.

Kode Zibilaren 1941. artikulua, edukitza baketsua izan behar dela aipatu egiten du⁹⁰. 441 eta 444 artikuluek aipatutako 1941. artikuluekin batera adierazi egiten dute, *en ningún caso puede adquirirse violentamente la posesión mientras exista un poseedor que se oponga a ello. El que se crea con acción o derecho para privar a otro de la tenencia de una cosa, siempre que el tenedor resista la entrega, deberá solicitar el auxilio de la Autoridad competente, eta los actos meramente tolerados, y los ejecutados clandestinamente y sin conocimiento del poseedor de una cosa, o con violencia, no afectan a la posesión.*

Adierazgarria da esatea ez dela zalantzan jartzen Juan Pedrok edo bere oinordekoek ondasunaren lortzean edo honen mantentzean egintzak baketsuak izan ez direnik, demandatuaren aldetik ez delako horrelakorik frogatu.

Beraz bukatzeko eta sententzia behin azalduta ikusi daiteke, ez ohiko usukapio baten aurrean kokatzen garela, 30 urteak, modu iraunkorrean, baketsuan, publikoan eta jabe izaeran eman direla frogatu egin zelako.

Kode Zibilaren 1930. artikulua xedatzen duenez, preskripzio bidez eskuratzen dira, legean zehaztutako modu eta baldintzetan, jabaria eta gainerako eskubide errealak. 1940. artikulua aipatu egiten du, *para la prescripción ordinaria del dominio y demás derechos reales se necesita poseer las cosas con buena fe y justo título por el tiempo determinado en la ley*, eta lege bereko 1941. artikulua, *la posesión ha de ser en concepto de dueño, pública, pacífica y no interrumpida.*

Beraz guzti hau aztertuta epaileak usukapioaren bidezko eskuraketa onartu egin zuen.

⁸⁹ Kode Zibilaren 1940. artikulua: *para la prescripción ordinaria del dominio y demás derechos reales se necesita poseer las cosas con buena fe y justo título por el tiempo determinado en la ley*, aipatu egiten du.

⁹⁰ Artikulua zera aipatzen du: *la posesión ha de ser en concepto de dueño, pública, pacífica y no interrumpida.*

5-ONDORIOAK

Lehenengoa:

Lanaren garapenean zehar ikusi ahal izan dugunez, usukapioa, erosketa-preskripzioa ere deitua, Kode Zibilean, ondasun baten jabetza eta titulu honi datzekion eskubide guztiak eskuratu ahal izateko jasotako formetako bat da. Usukapioaren bidez, jabe soilak izatetik jabetza izatera pasatzen gara.

Bigarrena:

Usukapioa gerta dadin, ezinbesteko baldintza da usukapendunak gauzaren edukitza izatea. Edukitza hori modu baketsuan gauzatu behar da, bai fede onez jardunez, ondasun horren gainean jabe garela uste dugulako edo fede txarrez, betiere, erabili ahal izateko behar den denbora igaro behar da .

Hirugarrena

Ondasun higigarriak nahiz higiezinak usukapitu daitezke, baina, ondasun horiek duten kategoriaren arabera, baldintzak desberdinak izango dira. Epeak laburragoak edo luzeagoak emango dira, azkenik usukapioaren bidez jabetza bereganatzeko .

Laugarrena:

Erabiltzaileak prozesu osoan jardun behar du gauzaren jabe gisa, ondasun horren gaineko eskubideak eta betebeharrak erabiliz. Beraz, gainerako gizartearen aurrean, objektuaren jabe legitimoa dela uste da. Erabiltzaileak jabe gisa jarduteari uzten dionean edo hirugarren baten aurrean gauza horren jabe legitimoa ez dela adierazten duenean, eskuratzeko-preskripzioa etengo da. Honek esan nahi du, etorkizunean erabili nahi izango balu, zenbaketa-denbora hutsetik hasi beharko litzatekeela, aurretik igarotako denbora metatu gabe.

Bosgarrena:

Usukapioak behar sozial bati erantzuten dio, jabetza inoren esku gera ez dadin edo jabetza horren jabe denari buruzko zalantzak egon ez daitezen. Modu horretan, jabe gisa jokatzeko duenari eta jabearen titulua ondasunaz arduratzen denari eratzkitzen zaio. Beste

alde batetik, zigor baten moduan ulertu daiteken urteetan zehar bere ondasunak deskuidatzen dituenarentzat, interesik ez duelako eta ondasuna uzten duelako.

6- BIBLIOGRAFIA ETA ERABILITAKO DOKUMENTAZIOA

Liburuak:

- DÍEZ-PICAZO, L. y GULLÓN, A.; *Sistema de Derecho Civil, Volumen III*; 2000
- DÍEZ-PICAZO ; *Fundamentos del derecho civil patrimonial. V. III*; 1996-2008
- CÉSAR. RASCÓN GARCÍA; *Manual de Derecho romano*; 1996
- JOSÉ LUIS LACRUZ BERDEJO, AGUSTÍN LUNA SERRANO, JOSÉ LUIS LACRUZ BERDEJO; *Elementos de derecho civil. III, Derechos reales. vol. 1, Posesión y propiedad*; 2000
- YZQUIERDO TOLSADA, M.; *Lecciones sobre Posesión y Usucapión*; Dykinson; Madrid; 2002.
- CESAR RASCON GARCIA; *Manual de derecho romano*.
- ALBALADEJO; *Usucapión*.
- MARÍA LUISA MORENO-TORRES HERRERA; *La usucapion*; 2012
- MANUEL ALBALADEJO, *Colegio Nacional de Registradores de la Propiedad y Mercantiles de España*; *La usucapión*; 2004
- BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO RODRIGO/TUR FAÚNDEZ MARÍA NÉLIDA, *Comentarios al Código Civil Tomo IX, Tirant o Blanch Tratados*., 2013
- ALBALDEJO ABARCA MANUEL, *Derecho Civil III; Derecho de Bienes*, editorial Edisofers.L.S., edición 12ª, Madrid, 2016
- DE VERDA Y BEAMONTE JOSÉ RAMÓN, *Revista Electrónica de Instituto de Derecho Iberoamericano, Algunas reflexiones sobre la usucapión “secundum” y “contra tabulas”*. A propósito de la sentencia del Tribunal Supremo , de 21 de enero de 2014
- ANGEL CARRASCO PEPERA, “*Posesión, buena fe. Interrupción de la posesión para la usucapión.Usucapión ordinaria. Justo titulo*”.

-MARIA GOÑI RODRIGUEZ DE ALMEIDA, “ El justo titulo para usucapir” RCDI,85, núm.771,2009,pp.492-497

-JOSE MARIA TRINCADO AZNAR, “ *El ámbito legitimador de la usucapión ordinaria de bienes inmuebles*”. RCDI,96,7

Legeria:

-1889ko Kode Zibila

-Ley 13/2015, de 24 de junio, de Reforma de la Ley Hipotecaria aprobada por Decreto de 8 de febrero de 1946 y del texto refundido de la Ley de Catastro Inmobiliario, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2004, de 5 de marzo.

Jurisprudentzia:

- AGko edo Auzitegi Gorenaren 1994/2020 epaia, 2020 ko ekainaren 24koa, erref: Cendoj.- ECLI:ES:TS:2020:1994
- AGko edo Auzitegi Gorenaren 313/2018 epaia, 2018ko otsailaren 5koa, erref: Cendoj, - ECLI:ES:TS:2018:313
- Palma de Mallorkako PAE, 4. atalarena, 1777/2015ko irailaren 21ekoa. Erref.: Cendoj, ECLI:ES:APIB:2015:177

Interneteko baliabideak:

[-https://derechoured.com/libro/derechos-reales/3348-las-clases-de-posesion](https://derechoured.com/libro/derechos-reales/3348-las-clases-de-posesion)

[-https://garanley.com/civil/usucapion/](https://garanley.com/civil/usucapion/)

[-http://www.juspedia.es/significado-de/usucapio](http://www.juspedia.es/significado-de/usucapio)

[-https://dle.rae.es/posesi%C3%B3n?m=form](https://dle.rae.es/posesi%C3%B3n?m=form)

<http://www.encyclopedia-juridica.com/d/servidumbre/servidumbre.htm>

- <http://www.encyclopedia-juridica.com/d/usufructo/usufructo.htm>

<http://www.encyclopedia-juridica.com/d/posesi%C3%B3n-mediata-e-inmediata/posesi%C3%B3n-mediata-e-inmediata.htm>

<https://www.derechoromano.es/2015/06/ley-xii-tablas.html>

<https://www.iberley.es/temas/propiedad-industrial-intelectual-42621>